

2024ko ARGIZPI ARGAZKI RALLYA

“Lourdes Losada Memoriala”

EGUNA: 2024eko Azaroaren 2an. Larunbata.

NON ETA IBILBIDEA: Beasaingo Udalerrian.

PARTE HARTZAILEAK: Kamera digitala duen edonork parte har dezake.

IZEN-EMATEA: Egun berean egingo da **goizeko 9:00etatik 10:00etara ARGIZPI** elkartearen egoitzan (Urbieta eraikuntza Gipuzkoa plaza zg.)

IZEN-EMATEAREN PREZIOA: 10 € parte hartzaile bakoitzak

GAIK: Izena emateko unean ezagutzera emango diren **derrigorrezko bost gai** eta **gai berezi bat, ez puntuagarria, protagonista** nagusia Beasaingo odolkia izango dena eta Beasaingo Odolkiaren Kofradiak urtero ematen duen sarirako hautagai izango dena.

MEMORIA-TXARTEL DESKARGA:

Txartelak, izen-ematea egingo den leku berean **deskargatuko dira 13:00etatik 14:00etara JPG-n**. Txartelek, gehienez, 36 argazki izango dituzte (**kontrol-argazkia barne**) argazkiak ezabatu ahal izango dira. Txartel bakoitzeko lehenengo argazkia kontrol-argazkia izango denez, rallyaren hasieran txartela hutsik egon beharko du.

Ezingo dira erabili ordenagailua edota kameraren sortzeko ahalmenak.

Parte-hartzaileek, **azaroaren 6a baino lehen, rallyargizpi.beasain@gmail.com** helbidera mezu bat bidali behar dute parte-hartzaile zenbakia eta gai bakoitzeko aukeratutako argazkiaren zenbakia adieraziz.

EPAIMAHAIA: Antolatzaileek izendatuko dute eta bere erabakia apelaezina izango da

SARIAK:

- **Lehenengo saria** 200 € eta garaikurra
- **Bigarren saria** 150 € eta diploma
- **Hirugarren saria** 100 € eta diploma
- **Lehenengo herritarra** 100 € eta diploma
- **Odolki Kofradiaren Sari Berezia.** Sari hau gaiari buruzko argazki onenari emango zaio. Odolkia Kofradia izango da **gai berezian** aurkeztutako argazki guztien artean egokiena/onena aukeratu duena. Garaileak odolki sorta eder bat jasoko du eta argazkia hurrengo Azoka Bereziaren kartela izango da. Argazki horrek horizontala izan behar du eta **ez da puntuagarria izango.**

HERRIZ HERRI: Parte hartzaile guztiek Herriz Herri lehiaketarako baliogarriak izango diren puntuak jasoko dituzte.

Lehiaketa honen informazioa eta egutegia kontsulta daitezke hurrengo web orrian: www.hhargazki.eus

SARI BANAKETA: Bilduma garaileen proiektzioa eta sari banaketa Beasaingo Udaletxearen Areto Nagusian egingo da azaroaren 22an, arratsaldeko 19:00 etan.

OHARRAK:

- Saritutako argazki guztiak antolatzaileen esku geratuko dira eta horien erabilera eta erreproduktzio eskubidea gordeko dute, beti ere, egilearen izena aipatuz.
- Edozein zalantza edo arazo sortuz gero, antolatzaileak arduratuko dira berau bideratzeaz.
- Rallyan parte hartzeak lehiaketaren oinarriak gutziz onartzea dakar.
- Batzorde antolatzaileak ez du bere gain hartuko ekintza garatzen den bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sor daitezkeen kalte edota hondatzearen aurrean inolako erantzunkizunik.